

BEHIN FORU ALDUNDIAK KATAIDKO BIHURGUNEAREN ISTRIPU KOPURU ERREALA AMETITUTA, SOLUZIOEN GARAIA DA

Arrasateko EH BILDUK eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako EH BILDUREN batzarkide taldeen elkarlanari esker GI-627 errepideko Kataideko bihurgunearen gaia mahai gainera irten da. Hasiera batean Foru Aldundiak istripu kopuru okerra eman zigun, adieraziz ez zutela ondo ulertu gure galdera. Behin hori argituta, istripu kopurua garrantzitsua iruditzen zaigu: 2015ean 29 istripu egon ziren, 2016an 45 eta 2017an abuztu arte soilik 26. Beraz, bi urte eta erdian ia 100 istripu egon dira eta orotara 36 zauritu.

Gure ustez istripu kopuru esanguratsua da eta neurriak hartu behar dira berandu baino lehen. Hori dela eta azaroaren 9an ebazpen proposamena aurkeztu zuen Batzar Nagusietan EH BILDUK ondorengo 2 eskaerekin:

1. Gipuzkoako Batzar Nagusiek Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diote, Arrasateko GI-627 errepidean gertatzen ari den istripu kopuru handiari aurre egiteko, bere eskumenen barruan, lehen bai lehen, neurriak har ditzala, hala nola, asfalto egoki bat botatzen edota peralte berria sortuz.
2. Gipuzkoako Batzar Nagusiek Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diote Arrasateko GI-627 errepidean gertatzen ari den istripu kopuru handiari aurre egiteko bere eskumenez gain egon litezkeen beste neurri batzuk Arrasateko Udalarekin zein Eusko Jaurlaritzako Barne Sailarekin adostu eta koordina ditzala.

Espero duguna da Aintzane Oiarbide Azpiegitura Diputatuak kasu egitea gure demandari, ulertzen dugula ez dela alderdi baten demanda, herri baten demanda baizik. Guk lanean jarraituko dugu gaia ez dadin kaxoi batean geratu eta soluzioak arin etor daitezen.

Agiri-mota: **EBAZPEN PROPOSAMENA.**
Data: 2017.11.09
Nori zuzendua: BNetako Mahaiari
Aurkezlea: IBAN ASENJO
Batzarkide taldea: EH BILDU

IZENBURUA:

Ebazpen proposamena, Bide-azpiegituretako batzordean eztabaidatua izan dadin, Arrasateko GI-627 errepidean gertatzen ari den istripu kopuru handiari aurre egiteko.

ZIOA eta/edo AURREKARIAK :

Azken hiru urte hauetan GI-627 errepidea, Arrasate udalerrriaren barruan, geratzen ari den auto istripua oso handia da. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Herrizaingo Sailak emandako informazioan oinarritua, darabiltzan datuak oso kezagarriak dira, egun, inongo neurririk hartu ez duen arren. Datu hauen arabera, 2015an 29 istripu egon ziren, 2016an 45 eta 2017an, bakarrik abuztura arte, 26. Beraz, bi urte eta erdian, 100 istripu egon dira, horietatik 36, zaurituekin. Horregatik guztiagatik, hurrengo ebazpen proposamena luzatzen dugu, Bide-azpiegituretako batzordean eztabaidatua izan dadin:

EBAZPEN PROPOSAMENA:

1. Gipuzkoako Batzar Nagusiek Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diote, Arrasateko GI-627 errepidean gertatzen ari den istripu kopuru handiari aurre egiteko, bere eskumenen barruan, lehen bai lehen, neurriak har ditzala, hala nola, asfalto egoki bat botatzen edota peralte berria sortuz.
2. Gipuzkoako Batzar Nagusiek Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diote Arrasateko GI-627 errepidean gertatzen ari den istripu kopuru handiari aurre egiteko bere eskumenez gain egon litezkeen beste neurri batzuk Arrasateko Udalarekin zein Eusko Jaurlaritzako Barne Sailarekin adostu eta koordina ditzala..

Proposatzailearen sinadura

Bozeramailearen oniritzia

IBAN ASENJO
EH BILDU

XABIER OLANO
EH BILDU